

Donostia, 2021eko apirilaren 23a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA: SANTA KLARA UHARTEKO KAI-MUTURRAK DITUEN KALTEAK ETA HAI EK KONPONTZEKO EGIN BEHARREKO OBRAK

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegik, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu eta Santa Klara uhartereko kai-muturrean diren kalteen eta haien konpontzeko obren gaineko KONTROL MOZIO hau dakar, GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) interpelazioa egin eta gero.

JUSTIFIKAZIOA

2020ko urrian, itsasargiaren obretara egindako bisita batean, Santa Klara uhartereko kaia-muturraren egitura hondatuta zegoela ikusi zuten. Hala, hondatuta zegoen tokia aztertu ondoren, zimenduan zulo handi batzuk zeudela zehaztu zuten, haren egituraren egoera eta egonkortasuna arriskuan jartzeko modukoak.

Ekaitzak eta itsasoaren indarrak egin dituela kalteak esan dute, eta, toki txarrean daudenez -- uhartera jende garraioan ibiltzen diren txalupak hartzeko tokia, uhartera iristen diren pertsona gehienak ibiltzen direna--, konpontzeari ekitea erabaki dute. Hain zuzen ere, Gobernu Batzarrak apirilaren 20an izan zuen bileran, premiazko bidetik ematea erabaki zuen konpontzeko obra. Egiteko, hiru hilabete inguru beharko dituztela jo dute, eta, hortaz, gauzak pentsatuta bezala ateratzen badira, uztailearen azkeneko eginda izango direla.

Beraz, eragozpenik sortzen ez bada, uztailearen amaieran izango dira obrak bukatuta, hau da, ekainaren 1ean udako denboraldia hasi eta bi hilabete geroago. Kalte larri horiek joan den urteko urrian ikusi zituztela kontuan hartuta, ulertezina da lehenago ez hastea konpontzen, udarekin batera ez tokatzeko obrak.

Hil honetako batzordean, Kulturako eta Euskarako zinegotzi eskuordedunak ez zuen baieztatu kaia erabiltzea eta obrak egitea biak batera egiteko modua izango denik; begiratuko dutela esan zuen,

eta batez ere herritarren segurtasuna bermatzea lehenetsiko dutela esan zuen behin eta berriz. Hala ere, egun bat geroago, obra premiazko bidetik ematea onartu zuen tokiko gobernu batzarraren ondoren, alkateak jakinarazi zuen obra eta udako denboraldiari dagozkion erabilerak bateragarri izango direla, eta baita itsasargiko eskultura ikusteko bisitak ere.

Alkateak berak premiazko konponketa esleitzeko emandako justifikazioa kontuan hartuta, jendeak txalupa hartzen duen tokiaren parean zimenduaren azpia janda zegoela eta arriskua zegoela esan baitzuen, harrigarria da erabilera hori eta obrak egitea bateragarri izatea. Pertsonen segurtasunak izan behar du aurrena, eta oraindik eta gehiago pertsonak uhartera sartzeko erabiltzen den tokian bertan esku hartu behar bada.

Bestalde, hiriko mantentze-lanen sailetik ere adierazi dute itsasargira doan bidean ere obra batzuk egin behar dituztelakoa, maiatzean bukatu eta, hartara, ekainean eskultura inauguratzerako konponduta izateko hura.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio dikearen egitura konpondu eta egonkortzeko obrak eta itsasargiko bidekoak bukatu arte ez izateko udako denboraldiko erabilerarik eta itsasargiko eskultura ikusteko bisitarik uhartean, bisitarien segurtasuna bermatu ahal izateko.
2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio atzeratzeko Cristina Iglesiasen eskulturaren inaugurazioa harik eta ontziralekua konpondu, kai-muturraren egonkortasuna bermatu eta farora igotzeko bidea hobetu arte.

Haizea Garay Gallastegui,
Elkarrekin Donostiako zinegotzia